



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 21a

37. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Ledeako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- Comptos Ganberako lehendakariaren ebazpena, 2006ko martxoaren 22koa, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen ([21. or.](#)).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa. Gainditu dutenen zerrenda ([23. or.](#)).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ledeako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Ledeko Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Ledeako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua (3. or.).</p> <p>III. Fiskalizazioaren norainokoa eta mugak (3. or.).</p> <p>IV. Iritzia (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioa dela eta (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta ekonomia-emaizaren agerpena (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Legezkotasuna (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Finantza egoera 2004ko abenduaren 31n (4. or.).</p> <p>V. Ledeko Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. 2004ko aurrekontu-betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (5. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.2. Egoeraren balantzea (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Ekonomia emaitzaren egoera 2004ko abenduaren 31n (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Udalak 2002, 2003 eta 2004an jasotako dirulaguntzak (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Hirigintza (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.6. Liskarko harrobia ustiatzeko administrazio-ko emakida mugatzeko hitzarmena, Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen ordenantza (10. or.).</p> <p>1. eranskina. Aurrekontuko dirusarrera eta gastuak, kapituluz kapitulu (13. or.).</p> <p>2. eranskina. Aurrekontuko gastuak, kapitulu eta funtzio-multzoen arabera (14. or.).</p> <p>3. eranskina. Balantzea 2004ko abenduaren 31n (15. or.).</p> <p>4. eranskina. Emaitza ekonomikoaren egoera 2004 abenduaren 31n (15. or.).</p> <p>5. eranskina. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2004ko abenduaren 31n (16. or.).</p> <p>Ledeako Udaleko Osoko Bilkurak aurkezturiko alegazioak (17. or.).</p> <p>Ledeako Udaleko Osoko Bilkurak aurkezturiko alegazioen erantzuna (18. or.).</p> <p>Ledeako Udaleko alkate ohiak aurkezturiko alegazioak (20. or.).</p> <p>Ledeako Udaleko alkate ohiak aurkezturiko alegazioen erantzuna (20. or.).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Comptos Ganberak, abenduaren 20ko 19/19884 Foru Legeari jarraikiz, Ledeako Udalaren ekonomia eta finantza kudeaketa fiskalizatu du.

Ledeako Udalak Osoko Bilkuran egin zuen eskaerari jarraikiz, Comptos Ganberak 2005erako onetsi zuen urteko fiskalizazio-programan sartu zuen lan hau.

Ledeako Udala (hemendik aitzina udala) Zangozako Merindadean dago; 2004ko urtarrilaren

1eko erroldaren arabera 344 biztanle ditu, eta 19 km²-ko azalera.

Udala Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatean sarturik dago, soil-soilik, goi-presio-ko uraren zerbitzua, hiri hondakin solidoen bilketa eta oinarritzko gizarte zerbitzuak emateko. Orobat sarturik dago Cederna Garalur elkartean.

Ondoko taulan agertzen diren zenbatekoak izan dira 2003an eta 2004an udalak izandako aipagarrienak:

Aitorturiko eskubideak (eurotan)		Aitorturiko betebeharrak (eurotan)		Langile kopurua, batez beste	
2004	2003	2004	2003	2004	2003
408.460	1.300.828	615.478	958.670	3	3

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari jarraituz, bai eta Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari ere, Ledeako Udalaren 2004ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta haren aurrekontuaren betetzearen fiskalizazioa egin dugu; txosten honetako norainokoa zehazten diren aurreko ekitaldietako gastu eta dirusarreretara zabaldu dugu gure azterketa.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitetako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitate instrukzio sinplifikatuari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Ledeako Udalaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta ekonomia-emaiza agertzea, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen udalaren finantza-egoera 2004ko abenduaren 31n.

III. FISKALIZAZIOAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren norainokoa udalaren 2004ko ekitaldiko kontu orokorrera heltzen da, hartan sartzen baitira aurrekontuaren likidazio espedientea, ekonomia eta ondare egoeraren espedientea (ekonomia emaitza eta balantzea) eta kontu orokorraren eranskinak.

Udalaren Osoko Bilkurak eskaturik, fiskalizazioak aurreko ekitaldietako udal kudeaketaren alderdi jakin batzuk ere hartu ditu barne. Horra:

a) Udalak 2002, 2003 eta 2004an jasotako dirulaguntzak.

b) Ereku publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen ordenantza.

c) Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena.

d) 1997-1999 hirurteko planeko obren exekuzioa –2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietakoak–.

Orobat aztertu da udalaren 2004ko abenduaren 31ko ekonomia eta finantza egoera.

Ereku publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen ordenantza eta Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena direla-eta zenbait errekurtsu aurkeztu dira, eta auzitegiek eman dute horiei buruzko epaiak; hala errekurtsuak nola epaiak txosten honetako V.6 atalean jaso dira. Gu horiei gagozkie.

1997-1999 hirurteko planeko obrak ez direnez 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan bete, ez ditugu ikuskatu.

1992tik hona ez denez inbentarioa gaurkoti –Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari Departamentuak orduan egin zituen inbentarioa erredaktatzeko lanak–, gure lana mugatuta egon da, ez baitugu izan egoera-balantzeko ibilgetuan sarturiko ondasunei buruzko informaziorik, eta hori dela eta, ezin dugu haren saldoaren arrazoizkotasunari buruzko iritzirik eman.

Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsirik fiskalizazio-printzipio eta arauari jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun auditoriako froga guztiak egin eta kontabilitate-erregistroak nahiz bestelako dokumentazioa ere egiaztatu dugu.

Txostenak biltzen ditu udalaren barne kontrola eta finantza nahiz ekonomia kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

Txosteneko iritzia eta ondorioak egindako probetan lortutako ebidentzian oinarritzen dira, kontuan hartuta hautemandako akats eta irregulartasunen garrantzi erlatiboa.

Azterketa lana 2005eko uztailean egin dugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Egindako azterketaren ondorioz –arestiko atalean zehaztu dugu azterketaren norainokoa–, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA DELA ETA

Gure ustez, 2004ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, eginiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERA ETA EKONOMIA-EMAITZAREN AGERPENA

Gure ustez, 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta galera eta irabazien kontuak behar bezala islatzen ditu udalaren ondarea, ekonomia emaitza eta finantza egoera; salbuespena da ez dagoela 1992tik hona inbentario gaurkoturik.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantziarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da gure ustez.

IV.4. FINANTZA EGOERA 2004ko ABENDUAREN 31n

Ledeako Udalak 146.884 euroko diruzaintzako gerakina izan du, guztira, 2004ko abenduaren 31n; horietarik 33.150 udalaren plan orokorraren finantzazioari atxikirik daude, 94.207 inbertsioei atxikiriko lursailen salmentatik heldu diren baliabideak dira, eta, hortaz, gastu orokorretarako gerakina –hurrengo ekitaldietan egin beharreko gastuak finantzatzeko baliabide likidekoak– 19.527 eurokoa da.

2004ko abenduaren 31ko aurrezki garbia negatiboa izan da, -351.282 euro; izan ere, 2004ko ekitaldian 395.454 euroko finantza zama izan du Udalak, zorraren amortizazio aurreratua dela eta. Zorraren amortizazio aurreratua 2003ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatu zen.

Udalaren zorpetzeko muga ehuneko 18koa zen 2004ko abenduaren 31n gastu arruntetarako, eta zor bizia 399.236 eurokoa zen egun horretan.

V. LEDEAKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Atal honetan azaltzen dira aztertutako kontabilitatearen egoera-orrien arlorik adierazgarrienak direla-eta egindako fiskalizazio lanetik heldu diren ondorio nagusiak, bai eta Udalaren finantza-jardueraren kudeaketa hobetze aldera ganbera honek egiten dituen gomendioak ere.

V.1. 2004KO AURREKONTU-BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

Udalak, 2004ko maiatzaren 19an egin zuen Osoko Bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 2004ko ekitaldiko aurrekontu orokor bakarra eta hura betetzeko oinarriak; dirusarrera eta gastuen hasierako aurreikuspenak 455.320 eurokoak ziren.

2004an 340.995 euroko aurrekontu aldaketak egin ziren, hasierako aurreikuspenen ehuneko 75 alegia, gehien-gehienak zorra amortizatzeko gastuei buruzkoak. Egindako aldaketa ia-ia guztiak 2004ko abenduaren 30eko Osoko Bilkuran onetsi ziren, eta hasierako onespina 2005ean eman zen argitara.

Hona gure gomendioak:

- Behin betiko onespina aplikatu behar den urteko abenduaren 31 baino lehen egitea.
- Kasuan kasuko gastua aitortu aitzin eta toki ogasunei buruzko legean ezarritako prozedurari jarraikiz tramitatzea aurrekontu aldaketak, eta indarra izanen duten ekonomia ekitaldian argitaratzea.

V.1.1. 2004ko aurrekontuaren betetzearen azterketa.

2004ko ekitaldian **aitorturiko eskubideek** 408.460 euro egiten dute, behin betiko aurreikuspenen 51 eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 69 gutxiago alegia. Aurreko urtearekiko jaitsiera hori zor zaie, batez ere, harrobiaren aprobetxamenduen likidaziotik heldu diren dirusarrerari nahiz kapital-dirulaguntzei eta 2001-2003 hirurteko planeko obretarako hitzartutako kredituei –2003ko ekitaldian sortuak– .

2004ko dirusarreren osaera, ehunekotan, hauxe da, urte horretan aitorturiko eskubide guzti-ei dagokienez:

Dirusarrerak	ehunekoa
Zergak	19
Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	8
Transferentzia arruntak	22

Ondare-dirusarrerak	12
Inbertsioen besterentzea	23
Kapital-transferentziak	16
Guztira	100

2004ko ekitaldian **aitorturiko eskubideek** 615.478 euro egiten dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 36 gutxiago, batez ere inbertsio gastuak jaitsei direlako 2004an.

Behin betiko kredituen ehuneko 77 bete da; nabarmentzekoa da 2004rako aurreikusitako inbertsioen betetze maila baxua, behin betiko aurrekontuko ehuneko 9 bete baita.

Ekitaldian aitorturiko gastuak honela daude osaturik, ehunekoetan:

Gastuak	ehunekoa
Langileen soldatak	13
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	17
Interesak	3
Transferentzia arruntak	3
Inbertsioak	3
Kapital-transferentziak	
Finantza-pasiboen aldaketa	61
Guztira	100

Finantza zamak 2004ko gastu osoen ehuneko 64 egiten du; izan ere, udalak zenbait finantza entitateerikiko mailegu batzuen 351.154 euroko amortizazio aurreratua egin du 2004ko ekitaldian. Finantza entitateerikiko zorraren amortizazio osoa 377.298 eurokoa izan da 2004ko ekitaldian, eta urte horretan 18.156 euroko interesak sortu dira.

- 2004ko abenduaren 31ko **aurrekontu-emaizta doitua** 65.610,91 eurokoa izan da. Horra:

2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-emaizta.	-207.018,56
Finantzazioaren desbideraketa positiboa	-66.954,15
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	339.583,62
Aurrekontu-emaizta doitua	65.610,91

Finantza positiboaren desbideratzea udalaren plan orokorra eta kaleak finantzatzeko aldera 2004an aitorturiko dirusarrerari dagokie, eta ez du gasturik sortu ekitaldi horretan.

Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatu diren gastuak diruzaintzako gerakinaren kargura

2004an egin den zorraren amortizazioari dagoz-
kio.

V.1.2 Langileak

Langileek 2004an sortutako gastuek 79.825 euro egiten dute.

2004ko ekitaldiko plantilla organikoak –2004ko maiatzaren 19an onetsi zen– bi lanpostu jasotzen ditu; bata, idazkariarena, hutsik dago eta adminis-
trazio araubidean kontrataturiko langile batek bete-
tzen du, eta bestea, zerbitzu anitzetako langile
batena, lan-kontratupeko langile finko batek. Uda-
lak Osoko Bilkuran erabaki zuen zerbitzu anitzeta-
ko langilea funtzionario bihurtzea 2004ko abendu-
aren 31tik aitzineko ondorioekin.

2004an hiru langabetu kontratatu ziren, bi hiru
hilabeterako eta hirugarrena sei hilabeterako.

Langileen gastuei dagokienez egiaztatu dugu
ezen, oro har, arazoizkoak direla gastuak, behar
bezala kontabilizatu eta kalkulaturik daudela eta
bai kontratuak bai soldatak araudi indardunaren
araberakoak direla.

V.1.3. Zerbitzuak eta ondasun arruntak eros- tea

2004an zerbitzuen eta ondasun arruntak eros-
teko gastuak 104.331 euro egin du, aurreko ekital-
dian baino ehuneko 19 gehiago.

Horra horien osaera, kontzeptu ekonomikoen
arabera:

	Aitorturiko betebeharrak 2004
Makinen errentamendua	2.686
Konpontze eta mantentze lanak	15.285
Inbentariatu ezin den materiala	6.228
Hornigaiak	30.263
Aseguru primak	5.892
Zenbait gastu	39.167
Dietak eta garraioa	1.319
Guztira	104.331

Askotariko gastuen ehuneko 82 herriko jaiei
dagokie.

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da –lagi-
nak zerbitzuak eta ondasun arruntak erostetik
heldu den gastu osoaren ehuneko 41 egiten du–
gastu horiek justifikatuta eta behar bezala kontabi-
lizatuta daudela.

V.1.4. Emandako transferentzia arruntak

Transferentzia arruntak direla-eta 2004an sortu
den gastuak 18.971 euro egiten du, eta batez ere
Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunita-
teari egindako ekarpenari dagokio; transferentzia
guztien ehuneko 59 egiten du.

Ikusi ahal izan denez, transferentzia hartu
duten entitateek aurreztutako ziurtagirietan dute
euskarri arlo horretako gastuek, eta behar bezala
kontabilizatuta daude.

V.1.5 Inbertsioak

2004ko ekitaldian eginiko inbertsioek 16.321
euro egiten dute, aurreikusitako inbertsio guztien
ehuneko 9 alegia. Betetze maila baxu hori bereziki
zor zaio ondoko proiektuak egin ez izanari:

- Lurrak erostea, hilerriko bidea zolatzea,
horma-hilobiak, lursailak besterentzetik heldu diren
dirusarrerekin finantzatuak.

- Dinamizazio turistikoko planaren II. fasea,
dirulaguntzekin finantzatua.

- Udalaren plan orokorraren garapena geldi-
tzea.

Hona 2004ko ekitaldiko inbertsio nagusiak:

	Aitorturiko betebeharrak 2004
Arroilako bideko uraren hodia	8.820
Dinamizazio turistikoko plana I. eta II. fasea	2.701
DVD eta zine proiektugailua	2.425
Hiri altzariak	1.577

Gastu osoaren ehuneko 88 egiten duen arlo
horretan egindako azterketatik ondorioztatzen ahal
da ezen, oro har, kontratuei buruzko legediaren
arabera tramitatu direla, egoki, zeinek bere faktu-
ran duela oinarri eta ongi kontabilizatuta daudela.

V.1.6 Tributu bidezko dirusarrerak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak

2004ko ekitaldian tributu bidezko dirusarrerak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak direla-eta aitorturiko eskubideek 108.978 euro egiten dute, eskubide guztien ehuneko 27 alegia, eta ondoko kontzeptu eta tributu-figurei dagozkie:

Hirilurraren gaineko kontribuzioa	33.685
Landalurraren gaineko kontribuzioa	4.880
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	9.427
Lurren balio igoeraren gaineko zerga	1.629
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	14.495
Zuzeneko zergak, guztira	64.116
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	11.384
Zeharkako zergak, guztira	11.384
Tasak eta prezio publikoak	33.478
Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak, guztira	33.478
Guztira	108.978

Azpimarratzekoa da hirilurraren gaineko kontribuzioak daukan garrantzia; izan ere, gainerako tributu-figurak erraz gaitzen ditu; ondotik dator ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga. Nabarmentzekoak dira orobat ur hornidurako dirusarrerak, tasa eta prezio publikoen bidezko dirusarrera guztien ehuneko 77 egiten baitute.

Udalak bildutako zergei dagokienez, jarraian erakusten dira, zerga-motaren arabera antolaturik, Udalak 2004ko ekitaldian aplikaturiko tarifak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutako gehieneko kopuruekin alderatuta:

Tributua	Ehunekoa/Indizea	
	Udala	Toki ogasunei buruzko Legea
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	0,3265	0,10 - 0,50
Landalurraren gaineko kontribuzioa	0,5621	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	8	8 - 20
• 5 urte bitartean	2,5	2,2 - 3,3
• 10 urte bitartean	2,5	2,1 - 3,2
• 15 urte bitartean	2	2,0 - 3,1
• 20 urte bitartean	2	2,0 - 3,1
Eraikinak, instalazioak eta obrak	3	2 - 5

Dirusarreren arloaren azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, ordainagiri bidez ordainarazitako zergek kasuko erroldetan dutela oinarri, behar bezala likidatu direla, udalak ordainarazitako tasak arautzen dituzten kasuan kasuko ordenantzak onetsi direla eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

V.1.7. Ondarearen bidezko dirusarrerak

2004ko ekitaldian sortu diren ondare bidezko dirusarrerak 48.619 euro egiten dute; horietarik 28.848 Liskarko harrobia ustiatzeko kanonari dagozkie, eta gainerakoa herrilurren aprobetxamendutik heldu diren dirusarrerak dira.

2004ko ekitaldirako kanonaren likidazioa harrobia ustiatzeko itunean ezarritakoarekin bat egin zela egiaztatu da. Ituna 2000ko urtarrilaren 1ean sinatu zen.

Herrilurren aprobetxamendutik heldu diren dirusarrerak 1999an adjudikatu eta 2004ko kuota kalkulatzeko aldera KPlaren arabera gaurkotutako larreen aprobetxamenduei dagozkie, eta guztira 17.334,18 euro egiten dute.

Herrilurren aprobetxamenduak arautze aldera udalak onetsitako ordenantzarekin bat egin zen likidazioa.

V.1.8. Inbertsio errealen besterentzea

Egindako inbertsioen besterentzetik heldu diren dirusarrerek 94.207 euro egin dute 2004an, eta bi lurzati saltzetik heldu dira, BEZa kanpo.

Egiaztatu dugunez, udalak Osoko Bilkuran hartutako erabaki bati jarraikiz saldu ziren lurzatiak, enkante bidez saldu ere, besterengarritasuna deklaratu ondoren eta ondasunak besterentzeari

aplikatzekoa zaion legedian ezarritako prozedurarekin bat.

V.2. EGOERAREN BALANTZEA

Udalaren egoeraren balantzeak ondoko osaera agertzen zuen 2004ko abenduaren 31n kontabilitate instrukzio sinplifikatuan ezarritako ereduarekin bat:

AKTIBOA	Zenbatekoa	PASIBOA	Zenbatekoa
Ibilgetua	734.263,01	Funts berekiak	490.957,36
Ibilkorra	428.502,31	Epe luzerako zorrak	399.236,33
		Epe laburreko zorrak	272.571,63
Aktiboa, guztira	1.162.765,32	Pasiboa, guztira	1.162.765,32

Ondoko ataletan azaltzen dira aztertu ditugun balantze-multzoei buruz atera ditugun ondorioak eta egindako fiskalizaziotik heldu diren gomendioak.

V.2.1. Ibilgetua

Ibilgetuko ondasun ia-ia guztiak sartzen dira erabilera orokorreko ondasun eta azpiegituren multzoan.

2004an egin zen bi lurzatiren salmenta ez da erregistratu ibilgetuaren baja gisa, eta hortaz, salmenta hori ez da jaso egoeraren balantzean.

Ezin izan dugu egiaztatu ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna; izan ere, ibilgetua 1992koa da, eta ez da gaurkotu; hortaz, ezin izan dugu egiaztatu udalaren ondarea osatzen duten ondasunen izaera eta balorazioa.

Hona arlo honi buruzko gomendioak:

- *Udalaren ondasun guztien inbentario balioztatu eta gaurkotua egitea, eta, urtero, abenduaren 31 baino lehen inbentarioa zuzentzea.*

- *Udal ondasun guztiak –jabari eta zerbitzu publikokoak, herri ondasunak eta ondarekoak– kasuan kasuko erregistroetan inskribatzea.*

- *Ibilgetuaren kasuan kasuko atalean erregistratzea udalaren ondasun guztiak, inbentarioan jaso beharko direnak behar bezala identifikatuta zein bere ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoen arabera.*

- *Besterendutako ondasunen baja ibilgetuaren kontuetan kontabilizatzea.*

V.2 2. Zirkulatzaila.

Egoeraren balantzeko zirkulatzaila 428.502,31 eurokoa da, eta ondokoei dagokie:

2004ko aurrekontuko zordunak	183.412,25
2004ko ekitaldia baino lehenagoko aurrekontuetako zordunak	10.313,54
Aurrekontuz kanpoko zordunak	15.205,81
Zordunak, guztira	208.931,60
Finantza kontuak	219.570,71

Egiaztatu dugunez, 2004ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden eskubideak, 2004ko aurrekontuaren nahiz itxitako aurrekontuen likidazioan jasotzen direnak, biltzen dituzte aurrekontuko zordunek.

2004ko ekitaldian baliogabetu egin ziren 2003an kontabilizatutako 171.609 euroko eskubideak, 1998, 1999 eta 2000n harrobiaren aprobe-txamendutik heldu ziren dirusarrerei dagozkienak. Baliogatze horiek oinarri dute Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai bat, baliogabe deklaratu zituena harrobiaren 1998 eta 1999ko likidazioak, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen bat, 2000ko likidazioa baliogabetu zuena.

2004ko ekitaldiko aurrekontuko zordunak (183.412 euro) lurzatiak 94.207 eurotan saldu izanari, udalaren plan orokorrerako 40.590 euroko dirulaguntza eman izanari eta harrobiaren 28.848 euroko kanonari dagozkie batez ere.

Zordun horiek 8.118 euro gehiagoko saldoa dute, udalaren plan orokorraren dirulaguntzak oker –goiti, alegia– kontabilizatu zuelako zenbateko hori.

Aurrekontuz kanpoko 2004ko abenduaren 31ko zordunak (15.206 euro) lurzatiaren salmentan jasanarazi eta 2004ko ekitaldia ixtean kobratzeke zegoen BEZari dagozkio.

Udalak ez du kudeatzen premiamendu bidezko dirusarreraren bilketa.

Halere, udalak premiamendu bidez tramitatu zituen Liskarko harrobiko herrilurretako aprobetxamendu berezien tasa dela-eta zor ziren zenbatekoak, sasoi hartan kobratzeke zeuden zenbatekorik handienak baitziren.

Finantza kontuen saldoa 219.571 eurokoa zen 2004ko abenduaren 31n; horietarik 204.138 frontoiaren itxitura finantzatzeko eta 2001etik 2003ra bitarteko hirurteko planeko inbertsioetarako udalak hitzartutako bi kreditu-kontuko saldo erabilgarriari dagozkio.

Finantza kontuen saldoa bat dator kontaketa aktan islatzen den diruzaintzaren egoerarekin eta finantza entitateek igorritako informazioarekin.

Zirkulatzailerearen arloari dagokionez, gure gomendioa da premiamendu bidez kudeatzea, kobratzeko borondatezko epea bukatzen denetik aitzina, tributu bidezko dirusarreraren bilketa, eta ehuneko 20ko errekarua aplikatzea ingresatu gabeko zorraren zenbatekoari, bai eta kasuan kasuko berandutza-interesak ere.

V.2.3. Epe luzerako zorrak

2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzean jasotzen diren epe luzerako zorrak 399.236

euro egiten du –2003ko ekitaldia ixtean 776.534 eurokoa zen–, eta udalak egun horretan erregistratutako finantza-pasiboen zor biziari dagozkio. 2001etik 2003ra bitarteko hirurteko planeko obretarako hitzartutako maileguetako 351.154 euro amortizatu dira 2004an.

V.3. EKONOMIA EMAITZAREN EGOERA 2004ko ABENDUAREN 31n

Ledeako Udalaren 2004ko abenduaren 31ko ekonomia emaitza 146.170 euro negatibokoa da. Horra:

Ekitaldiaren emaitza korrontea	25.439
Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	-171.609
Ekonomia emaitza negatiboa	-146.170

25.439 euroko emaitza korrontea dirusarrera arrunten eta gastu arrunten arteko aldeak sortu du –txosteneko aurrekontu betetzeari buruzko atalean aztertu dira horiek–.

Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak harrobiaren aprobetxamenduetako 1998, 1999 eta 2000ko dirusarrerei dagozkie; 2003an kontabilizatu ziren eta, auzitegiek horiek baliogabetu zituztenez, udalak kontabilitatetik deuseztatu zituen, txosten honetan adierazi bezala.

V.4. UDALAK 2002, 2003 ETA 2004an JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

Udalak 2002, 2003 eta 2004an kontabilizatutako dirulaguntzak ondotik zehazten diren gastuen finantzazioari aplikatzen zaizkio. Horra zenbatekoak:

	2002	2003	2004	Guztira
Langabetuak kontratatzea		6.548,60		6.548,60
Basoko jarduketak	11.380,22			11.380,22
Arau subsidiarioak berraztertzea	15.334,93			15.334,93
Udalaren plan orokorra taxutzea			40.589,98	40.589,98
Sareak berritzea, 5. eta 6. faseak. 2001-2003 IHP	110.118,12		26.364,17	136.482,29
Zola ematea		250.387,76		250.387,76
IDECAL programa		500,00		500,00
Seinalizazio turistikoko plana		1.521,92		1.521,92
CEDERNA, seinalizazio eta erregulazioa		1.141,44		1.141,44
Guztira	136.833,27	260.099,72	66.954,15	463.887,14

Dirulaguntza horiek guztiak –salbu eta seinalizazio eta erregulazioari buruzkoa– Nafarroako Gobernuak eman ditu.

Udalak jasotako dirulaguntzen azterketa egitean alderatu egin ditugu udalaren kontabilitate-informazioa eta Nafarroako Gobernuarena, bai eta dirulaguntza eman izanari buruz Gobernuak igorritako egiaztagiriak ere.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen erregistratu diren dirulaguntzak Nafarroako Gobernuak emandakoak direla, salbu eta 8.118 euroko bat, udalaren plan orokorrari dagokiona –horren kostuaren ehuneko 80 diruz lagundua da, eta udalak ehuneko 100 kontabilizatu du–. Emandako dirulaguntza guztiak kontabilizatu ditu udalak.

V.5. HIRIGINTZA

Udalaren hirigintza planeamenduko tresna indarduna udalaren arau subsidiarioak dira Ledea-ko Udalaren kasuan.

2004an lankidetzeta hitzarmen bat sinatu zuten udalak eta Nafarroako Gobernuak, udalaren plan orokorra taxutze aldera; haren kostua, aurreikuspenen arabera, 40.590 eurokoa da, eta ehuneko 80 Nafarroako Gobernuak finantzatu du.

V.6. LISKARKO HARROBIA USTIATZEKO ADMINISTRAZIOKO EMAKIDA MUGATZEKO HITZARMENA, EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO APROBETXAMENDU BEREZIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

V.6.1. Hitzarmenaren eta ordenantzaren aurrekariak eta ezarpena

Nafarroako Foru Diputazioak, 1963ko apirilaren 26an, erabaki zuen “udalari adieraztea udalerrian dagoen harrobia haren esku gelditzen dela, harrobiaren emakidari dagokionez”.

Ledeako Hogeiko Batzarrak, 1964ko otsailaren 6an, erabaki zuen, Nafarroako Foru Diputazioaren baimenaren arabera, udal intereseko deklaraztea harrobia ustiatzeko enpresa eskatzaileak karea fabrikatu eta harria txikitzeko industria instalaztea, bai eta enpresari zenbait laguntza ematea ere, besteak beste, herrilurrak erabat lagatzea industria garatzeko ustiapenak dirauen bitarte guztian, udal zergak ordaintzetik erabat salbuestea lehendabiziko 10 urteetan eta ehuneko 50 hamargarren urtetik hogeigarrenera bitarte.

1965eko martxoaren 16tik hona enpresa batek ustiatzen du Liskarko harrobia.

Udalak, 1966tik aitzina, urtero igortzen zion enpresa emakida-hartzaileari harrobiko agregakina ateratzeko jardueraren lizentzia fiskala.

1998an, Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen Ordenantza aldatu zuen Ledea-ko Udalak, eta zergagai bihurtu zuen harrizko materialak, agregakinak eta, oro har, harrobietakoak industrialki ustiatu, hondeatu eta garraiatzea.

2000ko urtarrilaren 1ean sinatu zuten udalak eta harrobiaren enpresa emakida-hartzaileak Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena, Liskarko alderdiko herrilurren aprobetxamenduaren administrazioko emakida arautze aldera, harrobiko agregakinen ustiapenaren bidez. Ledea-ko Udalak, 2000ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, hitzarmena onetsi zuen.

Arestian aipatutako ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespina 2001eko urtarrilaren 12ko NAO-n argitaratu zen. Aldaketa horrek ezartzen zuenez, harrobia ustiatzeko aprobetxamendu bereziaren ordenantzan ezarritako zenbatekoak ez dira aplikatuko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida arautzen duen hitzarmenak indarrean dirauen bitartean.

Hitzarmen horretan ezartzen da emakidak 30 urteko indarraldia izanen duela eta ordenantzan ezarritako kanonak ordaintzetik salbuestita dagoela; berriz, ondokoak ezartzen ditu:

- 30.051 euroko kanon bakarra, hitzarmena sinatzen denean eskura eta dena batera ordaindu beharrekoa, eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamenduen likidazioak, 1998 eta 1999ko ekitaldietakoak, konpentsatzeko.

- Urtero, 12.020 euroko kanon finko bat eta 0,12 euroko kanon aldakor bat ateratako metro kubiko bakoitzeko, ateratako lehendabiziko 100.000 metro kubikoak deskontatuta.

- Urtero, 24.040 euroko kanon finko bat eta 0,12 euroko kanon aldakor bat ateratako metro kubiko bakoitzeko, ateratako lehendabiziko 100.000 metro kubikoak deskontatuta, baldin eta harrobitik Esako urtegia handitzeko obrarako edo urtean 500.000 metro kubiko baino gehiago hornitzea dakarten udalez gaindiko obretarako harria ateratzen hasten bada .

V.6.2. Auzitegietakoa errekurtsioak eta horiei buruzko ebazpen eta epaiak

a) Inbentarioa dela eta

Ledeako zenbait egoiliarrek ondoko errekurtsioak aurkeztu zituzten hitzarmena dela eta:

- Berraztertze errekurtsioa, 2000ko ekainaren 9an, Osoko Bilkurak Liskarko harrobia ustiatzeko administrazio emakida mugatzeko hitzarmena behin betikoz onetsi izanaren aurkakoa. Errekurtsio hori udalak ezetsi zuen.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, 2000ko irailaren 28an, arestiko lerrokadan aipatzen den berraztertze errekurtsio ezesten zuen udalaren erabakiaren aurkakoa.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak, administrazioarekiko auzi-errekurtsio hori dela-eta 2003ko otsailaren 6an emandako behin betiko epaiaren bidez, baliogabe deklaratu zuen hitzarmeneko bosgarren klausula, ordenamendu juridikoaren aurkakoa izateagatik. Klausula horren bidez, 30.051 euroko kanon bakarra ezarri zen, eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamenduen likidazioak, 1998 eta 1999ko ekitaldietakoak, konpentsatzeko, eta enpresak konpromisoa hartu zuen 1998ko kanonaren likidazioa dela-eta jarri zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsioan atzera egiteko. Auzitegiak eskariaren gainontzeko alderdiak ezetsi zituen.

Txosten hau egin den egunean, udalak ez du oraindik itzuli enpresak ordaindutako 30.051 euroko kanona, eta enpresak ez dio udalari kanona itzul diezaion eskatu.

b) Harrobitik heldu diren aprobetxamendu berezien likidazioen aurka

Udalak 66.138 euroko zenbatekoa igorri zuen, 1998 eta 1999ko ekitaldietako bakoitzari zegokiona, Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen ordenantzan harrobiko jarduerarako ezarritako tarifaren arabera.

Harrobia ustiatzen zuen enpresak 1998ko ekitaldiari buruzko kanonaren likidazioaren aurkako alegazioak aurkeztu zituen. Alegazio horiek udalak ezetsi zituen. Ondoren, enpresak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zuen Ledeko Udalak 1998ko irailaren 30eko Osoko Bilkuran hartu zuen erabakiaren aurka, haren bidez berretsi baitzen enpresak 1998ko ekitaldiari buruzko kanonaren likidazioaren aurka aurkeztutako alegazioen ezespena. Enpresak, hitzarmeneko bosgarren klausulan ezarritakoaren indarrez, atzera egin zuen errekurtsioan.

Enpresak, hitzarmenean ezarritakoari jarraikiz, 30.051 euro kanona ordaindu zion udalari 1998 eta 1999ko ekitaldietako likidazioak konpentsatzeko.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1998 eta 1999ko ekitaldietako likidazioak konpentsatze aldera hitzarmeneko bosgarren klausulan ezarri zen 30.051 euroko kanona baliogabe deklaratu zuen epaia eman zuela ikusita, enpresa emakida-hartzaileak Nafarroako Auzitegi Nagusiari eskatu zion aurrera jarrai zezala udalak 1998ko likidazioa egin izanaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren prozedurarekin, eta errekurtsioa 1999 eta 2000ko ekitaldietako likidazioak onetsi izanari ere zabaltzeko.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak onartu egin zuen eskari hori, eta 1998 eta 1999ko ekitaldietako likidazioak baliogabe deklaratu zituen behin betiko epaia eman zuen 2004ko urriaren 19an.

2000ko kanona dela eta, udalak 2003an erabaki zuen 48.935 euro kobratzea enpresari, Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen ordenantzarekin bat.

Harrobia ustiatzen zuen enpresa emakida-hartzaileak berraztertze errekurtsioa aurkeztu zuen likidazio horren aurka, eta udalak errekurtsioa ezetsi zuen. Osoko Bilkurak berraztertze errekurtsioa ezestea erabaki zuen, eta enpresak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen 2003ko uztailaren 21ean Nafarroako Administrazio Auzitegian.

Nafarroako Administrazio Auzitegiak gora jotzeko errekurtsioa baietsi zuen 2004ko otsailaren 2ko ebazpen bidez, eta 200ko likidazioa, 48.935 eurokoa, baliogabe deklaratu.

1998 eta 1999ko ekitaldietako likidazioak baliogabe deklaratu zituen epaian, "Nafarroako Administrazio Auzitegiak 2000ko likidazioa baliogabetu zuela" dio Nafarroako Auzitegi Nagusiak 2000ko likidazioari buruz. Aldeek ez dute ebazpen horren aurkako errekurtsorik aurkeztu, eta hortaz, irmo eta onartu bihurtu da."

Laburbilduz, txosten hau egin den egunean, auzitegiek baliogabe deklaratu dituzte ondokoak:

- Liskarko hitzarmeneko bosgarren klausula. Horren bidez, 30.051 euroko kanon bakarra ezarri zen, harrobiko aprobetxamenduen likidazioak, 1998 eta 1999ko ekitaldietakoak, konpentsatzeko. Enpresak kanona ordaindu zuen, eta udalak ez dio dirua itzuli.

- Ordenantzarekin bat, harrobia ustiatzen duen enpresari 1998, 1999 eta 2000ko aprobetxamen-

duak direla-eta udalak egindako likidazioak. Hitzarmenarekin bat, udalak 2000ko likidazioa egin eta kobratu zion enpresari. Enpresari ez zaizkio igorri 1998 eta 1999ko kuotak; izan ere, ekitaldi horietan hitzarmena ez zegoen indarrean, eta ordenantzari jarraikiz egin beharreko likidazioa zuzenbidearekin bat ez datorrena eta, horrenbestez, baliogabea deklaratu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiak.

- 2001etik aitzina eta ondoko ekitaldietan, udalak Liskarko hitzarmenean ezarritako kanona kobratu dio harrobia ustiatzen duen enpresari, eta enpresak likidazio horiek ordaindu ditu.

Txosten hau auditore M^a. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINAK.

Eranskin honetan kontu orokorreko kontabilitateko egoera-orri batzuk sartu ditugu, ondokoak hain zuzen ere:

- Aurrekontuko dirusarrera eta gastuak, kapitulu kapitulu
- Aurrekontuko gastuak, kapitulu eta funtzio-multzoen arabera
- Balantzea.
- Emaidza ekonomikoaren egoera
- Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria

1. eranskina. Aurrekontuko dirusarrera eta gastuak, kapituluz kapitulu

2004ko dirusarreraren aurrekontuaren betetzea										
Euroak					Euroak					
Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Ordainarazia	Kobratzeke	Betetako ehunekoa	Betetako aitortutakoaren arabera	%	
Zuzeneko zergak	1	64.500	0	64.500	64.116	60.501	3.615	99	16	
Zeharkako zergak	2	24.000	0	24.000	11.384	8.141	3.243	47	3	
Tasak eta bestelako dirusarrerak.	3	42.365	0	42.365	33.478	31.619	1.859	79	8	
Transferentzia arruntak	4	96.805	0	96.805	89.702	87.336	2.366	93	22	
Ondare-dirusarrerak	5	35.410	0	35.410	48.619	11.086	37.533	137	12	
Inbertsio errealen besterentzea	6	80.000	0	80.000	94.207	0	94.207	118	23	
Kapital-transferentziak	7	112.240	0	112.240	66.954	26.364	40.590	60	16	
Finantza-aktiboen aldaketa	8	0	340.995	340.995	0	0	0	0	0	
Dirusarrerak, guztira		455.320	340.995	796.315	408.460	225.047	183.413	51	100	
2004ko gastuen aurrekontuaren betetzea										
Euroak					Euroak					
Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa	Ordaintzeke	Betetako ehunekoa	Betetako aitortutakoaren arabera	%	
Langileen lansariak	1	84.796		84.796	79.825	78.632	1.193	94	13	
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	119.331	(1.357)	117.974	104.331	96.515	7.816	88	17	
Interesak	3	22.860	0	22.860	18.156	17.715	441	79	3	
Transferentzia arruntak	4	18.733	1.357	20.090	18.971	13.890	5.081	94	3	
Inbertsio errealak	6	162.486	10.231	172.717	16.321	16.322	(1)	9	3	
Kapital-transferentziak	7	580	0	580	576	576	0	-	0	
Finantza-aktiboen aldaketa	8	0	0	0	0	0	0	-	0	
Finantza-pasiboen aldaketa	9	46.534	330.764	377.298	377.298	156.144	221.154	100	61	
Gastuak, guztira		455.320	340.995	796.315	615.478	379.794	235.684	77	100	
Aldeak				(207.018)	(154.747)	(52.271)				

2. eranskina. Aurrekontuko gastuak, kapitulu eta funtzio-multzoen arabera

2004ko gastu-aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera

Funtzionala	Deskripzioa	Langile-gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza-gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Kapital-transferentziak	Finantza-pasiboak	Aitorturiko betebeharrak, guztira	Guztiaren gaineko ehunekoa
0	Zor publikoa	-	-	18.156	-	-	-	377.298	395.454	64
1	Izaera orokorreko zerbitzuak	26.897	20.797	-	1.667	-	-	-	49.361	8
3	Herritarren segurtasuna eta gizartearen babes eta sustapena	35.541	-	-	9.052	-	-	-	44.593	7
4	Izaera sozialeko ondasun publikoak produzitzea	17.387	63.796	-	3.291	4.800	576	-	89.851	14
5	Izaera ekonomikoko ondasun publikoak produzitzea	-	884	-	1.363	-	-	-	2.246	1
6	Izaera orokorreko arautze ekonomikoa	-	2.327	-	-	-	-	-	2.327	1
7	Jarduera ekonomikoa eta sektoreen araubidea	-	-	-	2.642	11.521	-	-	14.163	2
9	Transferentziak administrazio publikoetara	-	16.527	-	956	-	-	-	17.483	3
	Guztira	79.825	104.331	18.156	18.971	16.321	576	377.298	615.478	100

3. eranskina. Balantzea 2004ko abenduaren 31n

AKTIBOA		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa, itxieran	Aurreko urteko zenbatekoa
Ibilgetua	734.263,01	720.155,15
Ibilgetu materiala	5.299,83	499,99
Ibilgetu ez-materiala	0,00	0,00
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	728.620,02	719.312,00
Herri ondasunak	343,16	343,16
Ibilgetu finantzarioa	0,00	0,00
Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0,00	0,00
Ibilkorra	428.502,31	583.095,94
Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	25.519,35	85.129,81
Aurrekontuko zordunak	183.412,25	465.162,37
FINANTZA KONTUAK	219.570,71	32.803,76
Aktiboa, guztira	1.162.765,32	1.303.251,09

PASIBOA		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa, itxieran	Aurreko urteko zenbatekoa
Funts berekiak	490.957,36	480.283,87
Ondare eta erreserbak	637.127,35	365.775,06
Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0,00	0,00
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-146.169,99	114.508,81
Epe luzerako zorrak	399.236,33	776.533,86
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	399.263,33	776.533,86
Epe laburreko zorrak	272.571,63	46.433,36
Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	36.888,08	17.830,60
Aurrekontuko hartzekodunak	235.683,55	28.602,76
Pasiboa, guztira	1.162.765,32	1.303.251,09

4. eranskina. Ekonomia emaitzaren egoera 2004ko abenduaren 31n

ZORRA		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa, itxieran	Aurreko urteko zenbatekoa
61 Langileen gastuak	79.824,82	89.231,08
62 Finantza-gastuak	18.156,05	12.245,30
64 Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	104.331,46	87.902,50
67 Transferentzia arruntak	18.970,92	10.134,95
68 Kapital-transferentziak	576,29	576,29
69 Kalkulatoriko gastuak	0,00	0,00
D80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa	0,00	0,00
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0,00	0,00
D83 Finantza aktiboen salmentarengatiko galerak	0,00	0,00
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	171.624,59	123.225,67
D89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	-146.169,99	0,00

HARTZEKOAK		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa, itxieran	Aurreko urteko zenbatekoa
70 Salmentak	33.477,53	68.046,58
71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	48.619,03	187.026,55
72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	59.376,71	81.038,63
73 Errentaren eta ondarearen gaineko ohiko zergak	14.494,62	12.696,80
76 Transferentzia arruntak	89.701,75	86.993,10
77 Kapitalaren gaineko zergak	1.628,73	2.022,94
78 Bestelako dirusarrerak	0,00	0,00
H80 Ekitaldiaren emaitza korrantea	25.348,83	237.734,38
H82 Irabaziak inbertsioak besterentzean eta bestelako inbertsio errealak	0,00	0,00
H83 Finantza aktiboen salmentaren irabaziak	0,00	0,00
H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	15,77	0,00
H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	0,00	114.508,81

5. eranskina.- Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2004ko abenduaren 31n

(+) Kobratzeko dauden eskubideak		199.885
Dirusarrerren aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	183.413	
Dirusarrerren aurrekontukoak. Aurrekontu itxiak	10.313	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	15.206	
Ken, kobratzen zailak diren saldoak	(9.047)	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak.		(272.572)
Gastuen aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	(235.684)	
Gastuen aurrekontukoak. Aurrekontu itxiak	(9.132)	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	(27.756)	
(+) Ekitaldiaren amaieran diruzaintzan dauden funts likidoak		219.571
(+) Finantziazioaren desbideraketa metatu negatiboa		
DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA		146.884
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina		33.150
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina		94.206
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina		19.528

LEDEAKO UDALEKO OSOKO BILKURAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Ledeako Udaleko Osoko Bilkurak, 2005eko abenduaren 21ean egindako bilkura arruntean, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

“COMPTOS GANBERAREN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENAREN ALEGAZIOAK ONESTEA

Ikusita Nafarroako Comptos Ganberako jarduneko lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Ledeko Udalaren 2004ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena onetsi eta, kasua bada, alegazioak egiteko igorri duen.

Lehendakaritzak bere harridura azaldu du Comptos Ganberaren txostenaren edukia dela eta; izan ere, txostenean ez dira jasotzen udalak ikuska zitezen eskatutako alderdiak, eta adierazi du ez daudela ados auditoretzaren emaitzarekin, batez ere Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmenari buruz dioenarekin.

Hona, hitzez hitz, erreferentziazko txostenaren alegazio proposamena:

“NAFARROAKO COMPTOS GANBERARI

Beatriz Olleta Sánchez andreak –adinduna, jakinarazpenen ondorioetarako helbidea: Escuelas kaleko 2. zenbakia, Ledea (Nafarroa); IFK zenbakia: P-3115400-H–, Ledeko Udaleko alkate naizen aldetik, Nafarroako Comptos Ganberaren aurrean agertu eta, zuzenbidean egokien den moduan, ondokoa diot:

Nafarroako Comptos Ganberaren 2005eko abenduaren 9ko ebazpenaren bidez, Ledeko Udalaren 2004ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena onetsi da, eta alde honi igorri dio, txosten horren edukia dela-eta egoki irizitako alegazioak aurkez ditzaun.

Idatzi honen bidez, alde honek, behar den epean eta moduan, behin-behineko fiskalizazio txosten horri buruzko ALEGAZIOAK aurkezten ditu.

BAKARRA. Alegazioen idatzi hau behin-behineko txosten horren eduki orokorraren aurka aurkeztu da; izan ere, txostena ez dator bat udal honek Nafarroako Comptos Ganberari 2003ko abenduaren 24an aurkeztu zion eskaerarekin.

Behin-behineko txostena 2004ko kudeaketa ekonomikoaren eta kontuen fiskalizazioa egitera mugatu da. Udalak ez zuen behin ere urte horri buruzko fiskalizazioa eskatu. Halatan, udal honen itxaropena zeharo zapuztu da; izan ere, gure asmoa zen legegintzaldi honen aurrekoaren eko-

nomia eta finantza jarduerari buruzko kanpo kontrola egitea, 2004aren aurreko urteena hain zuzen ere.

Udal honek ez du bat ere eragozpenik Comptos Ganberak, bere ekimenez, 2004ko kontuak azter ditzan; aitzitik, ez da desbideratzerik aurkitu, eta udalaren jarduerara, espero zitekeen bezala, legezotasun printzipioaren arabera izan da betiere.

Udal honen asmoa zen aurreko legegintzaldia fiskalizatzea legezotasun, gastu publikoaren arazoikotasun eta eraginkortasun eta ekonomia printzipioekin bat, Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 9. artikuluan xedatzen duen legez. Fiskalizazioa, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 347.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, toki entitatearen urteko kontuei eta ekonomia kudeaketari buruzkoa, kudeaketa orokorrari buruzkoa nahiz kudeaketaren alderdi jakin batzuei buruzkoa izan zitekeen. Hori dela eta, udal honen eskaeran –Toki administrazioari buruzko Foru Legeko 31.6.c) eta 348.c) artikuluetan xedatzen denari jarraikiz aho batez onetsi zen– gai jakin batzuk eta epe jakin bat (aurreko legegintzaldia) zehaztu ziren.

Egia da, bai, azken artikuluko horiek adierazten dutenez, toki entitateen eskariz egindako txostenetan, Comptos Ganberak berak erabakia du ganberaren jardueraren norainokoa, eta fiskalizazio programarekin koordinatuta eginen da.

Halere, onartzen zaila da Comptos Ganberak aztertu beharreko denbora esparrua murriztu izana; izan ere, udal etapa oso bat fiskalizatzea zen asmoa; etapa horri buruz, hain zuzen ere, ez da inoiz izan kanpo kontrolik, eta, administraziorekiko 643/2000 auzi-errekurtsoan auzitegiek frogatu duten legez, bazeuden udalak legez kanpo jardun zuelako zantzu argiak. Gainera, ez da logikoa udalak txostena eskatu zuen alderdiei buruz ganberak izan duen jarrera. Horra alderdiok:

1. Udalak azken zazpi urteetan jasotako dirulaguntzak, 2003tik atzera zenbatuta.

Comptos Ganberak 2002, 2003 eta 2004ra mugatu zuen denbora esparrua. Murrizketa horrek ez du logikarik; izan ere, ezin da ondorio juridiko eta ekonomiko orokorrik atera kanpo auditoriarik egin ez den legegintzaldi oso bati buruz.

2. Ura banatzeko eta saneamendurako sareak partzialki berritzeko obrak. Aurrera urbanizazioa eta San Martín auzoa. 1997-1999 hirurteko plana.

Comptos Ganberak ondoko izenburuarekin zehaztu zuen atal hori: 1997-1999 hirurteko plane-

ko obren exekuzioa –2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietakoak–.

Comptos Ganberak badaki aurreikusita dauden urteetan betetzen direla hirurteko plan guztiak, kasu honetan 1997 eta 1999 bitarte. Horrenbestez, zer dela-eta mugatu du fiskalizazioa 2002 eta ondoko urteetara, baldin eta gauza jakina bada urte horretan udalaren kontabilitatean ez dagoela gai horri buruzko oharrik?

3. Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen ordenantza eta Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena.

Behin-behineko txostenean soilik aztertu dira ordenantza eta, ondoren, 2000ko hitzarmena onesteko udal akordioak baldintzatu zituzten aurrekariak eta ondorengo egitateak, baina ez du inolako azterketarik egiten ez ordenantzaren ez hitzarmenaren legezotasunari eta egokierari buruz, eta ez du inolako ondorio juridiko edo ekonomikorik ateratzen eta ez du inolako jarraibiderik ematen udal honek jarraitu beharreko jarduketatildoei buruz.

Laburbilduz, Nafarroako Comptos Ganberak egin duen txostenean saihestu egin dira udal honentzat garrantzi handikoak diren eta fiskalizatu egin behar ziren zenbit alderdi.

Hori dela eta,

NAFARROAKO COMPTOS GANBERARI ARREN ESKATZEN DIOT aurkeztutzat har dezala idatzi hau, eta honekin batera Ledeako Udalaren 2004ko ekitaldiari buruzko behin-behineko txostenari egindako alegazioak ere, eta hartara erabaki dezan txostenak idatzi honetan azaltzen diren alderdiak eta 2003ko abenduaren 24ko eskarian zehaztutako gaiak ere jasoko dituela.

Ledean, bi mila eta bosteko abenduaren hogeita batean. Sin.: Beatriz Olleta Sánchez andrea. Ledeako alkatea,

Bertaratutako korporaziokide guztiek aho batez –legeak eskatzen duten quorumarekin alegia– ondokoa ERABAKI DUTE:

1. Ledeako Udalaren 2004ko ekitaldiari buruzko behin-behineko txostenari egindako alegazioak onestea.

2.º. Erabaki hau Nafarroako Comptos Ganberari jakinaraztea.”

Hau guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan. Erabaki honen aurka, errekurtsio hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

– Berraztertze errekurtsioa, egintza burutu duen organoari berari zuzendua, hilabeteko epean (azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko 116. eta 117. artikulua)

– Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpen honen biharamunetik hasita (Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 337. eta hurrengo artikulua)

– Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren arlo bereko organo eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazpen honen biharamunetik hasita (Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 7., 8. eta 10. artikulua)

Ledean, 2005eko abenduaren 22an

Alkatea: Beatriz Olleta

LEDEAKO UDALEKO OSOKO BILKURAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Ledeako Udalaren ekonomia kudeaketari eta kontuei buruz Comptos Ganberak egindako behin-behineko txostena dela-eta entitate horren Osoko Bilkurak ALEGAZIO BAKARRA aurkeztu zuen abenduaren 22an –alegazioan udalak adierazten du txostenak haren itxaropena zeharo zapuztu duela, lana 2004ko ekitaldira mugatu baita, eta ez aurreko legegintzaldiko ekonomia kudeaketara–. Bada, Comptos Ganberak ondokoa adierazi beharra du:

1. Ledeako Udalak, 2003ko abenduaren 24an, udalaren aurreko legegintzaldiko kontuak ikuska zitzan eskatu zion Comptos Ganbera, eta zehazki ondoko alderdiak:

- Azken zazpi urteetan jasotako dirulaguntzak

- Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen Ordenantza.

- Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena.

- Ura banatzeko eta saneamendurako sareak partzialki berritzeko obrak. Aurrera urbanizazioa eta San Martín auzoa. 1997-1999 hirurteko plana.

2. Comptos Ganberako lehendakaria eta zenbait korporaziokide 2004ko urtarrilaren 8an eta 2005eko apirilaren 27an bildu ziren ganberaren egoitzan, eskatutako fiskalizazioaren norainokoa zehazte aldera. Fiskalizazioa ezin izan zen 2004ko lan programan sartu, itxita zegoelako. Bilera horietan erabaki zen 2005ean eginen zela 2004ko eko-

nomia kudeaketari eta kontuei buruzko fiskalizazio osoa, udalaren 2004ko abenduaren 31ko ekonomia eta finantza egoera aztertze aldera. Fiskalizazio lana osatu eginen zen udala kezkatuta zuten aurreko ekitaldietako ondoko alderdiekin:

- Udalak 2002, 2003 eta 2004an jasotako dirulaguntzak.
- Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen Ordenantza.
- Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena.
- 1997-1999 hirurteko planeko obren exekuzioa –2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietakoak–.

Erabaki hori Comptos Ganberak Ledeko Udalarari 2005eko ekainaren 14an jakinarazi eta igorri zion agiri batean jaso zen (honekin batera doa haren fotokopia), fiskalizazioa hasi aitzin, 2005eko uztailaren 13an hasi baitzen.

Ledeako Udalak ez zuen behin ere adierazi edo jakinarazi, ez fiskalizazioaren aurretik ez hark iraun zuen bitartean ere, lanaren norainokoarekiko desadostasunik. Adierazi dugun legez, lanaren norainokoa korporaziokideekin adostu zen.

3. Bestalde, ez ditugu ulertzen aprobetxamenduen tasak arautzen dituen ordenantza eta Liskarko harrobia ustiatzeko hitzarmena direla-eta Comptos Ganberak egindako jarduketari buruz udalaren Osoko Bilkurak egiten dituen baieztapenak. Horri guztiari buruzko iritzia eman dute auzitegiek epai judizial irmo eta behin betikoen bidez, eta Comptos Ganbera horiei lotzen zaie, txosteneko III. atalean –fiskalizazioaren norainokoa eta mugak– adierazten den bezala. Auzi horiei buruzko ebazpen judizial irmoak daudenez, Comptos Ganbera, bere fiskalizazio txostenetan, egitateak aztertu eta ebazpen judizialen ondorioak azaldu besterik ezin du egin, ganberari ez baitagokio horiei buruzko legezketasun azterketarik edo baloraziorik egitea.

Harrobia ustiatzeko emakidaren truke enpresari udalari ordaindu beharreko zenbatekoari dagokionez, berriz, kontratua izenpetzen duten aldeei dagokie, gure ustez, harrobia ustiatzeko kanonaren zenbatekoa ezartzea; alegia, udalari eta enpresari dagokie, eta ez Comptos Ganberari, ezartzea zein izan behar duen harrobia ustiatzeko diru-ordaina. Hori dela eta, gure ustez, udalak bere interesak zaindu eta aldeztu beharko ditu auzi honetan nahiz beste edozeinetan, eta udalak uste baldin badu egungo hitzarmenean ezarritakoa gutxi dela, amaiarazi egin beharko luke eta

enpresarekin beste bat negoziatu, bidezkoa bada beste zenbateko bat ezarri emakidaren truke.

Ondorioz, Comptos Ganbera harrিতa dago udalak aurkeztu duen alegazioa ikusita; izan ere, arestiko lerroketan esandakoarekin bat, alkateak ondo asko zekien zein izanen zen Comptos Ganberaren jarduketaren norainoko zehatza, baita azterketa lana egiten hasi aitzin ere, eta ez zuen behin ere adierazi ados ez zegoenik.

Comptos Ganberaren lanak ez du udal kudeaketaren funtsezko alderdirik saihestu, eta txostenean jaso dira, ekonomia eta finantzaren ikuspegitik, handik ateratako ondorio nagusiak.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

LEDEAKO ALKATE M.^a BEATRIZ LUCÍA OLLETA SÁNCHEZ ANDREARI IGORRITAKOAREN KOPIA:

“Nafarroako Comptos Ganberaren ekitaldi honetarako fiskalizazio programarekin bat, Ledeko Udalaren 2004ko ekitaldiari eta aurreko ekitaldietako bestealiko alderdi osagarri batzuei buruzko auditoria eginen dugu.

Auditoria egiteko ardura auditore M.^a Asunción Olaechea Estanga andreari esleitu zaio.

Comptos Ganbera arautzen duen Foru Legeko 21. artikuluan ezarritakoa betez jakinarazten dizut fiskalizazioa heldu den uztailaren 13an hasiko dela eta lana, aipatu auditorea zuzendari dela, KPMG Auditores, S.L.k osatutako lan taldeak eginen duela.

Orobat jakinarazten dizut ezen fiskalizazioak 2004ko ekonomia kudeaketari eta kontuei buruzko fiskalizazioaz gain aurreko ekitaldietako zenbait alderdi osagarri ere jasoko dituela. Horra:

– Udalak 2002, 2003 eta 2004an jasotako dirulaguntzak.

– Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen Ordenantza.

– Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmena.

– 1997-1999 hirurteko planeko obren exekuzioa –2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietakoak–.

Jakin ezazu fiskalizazioaren emaitzak txosten publiko batek jasoko dituela. Txosten horren zirriborroa prest dagoenean entzunaldia emanen zaizu, aldeztu aurretik, modu ez ofizialean, eta modu ofizialean, idatziz, behin-behineko txostena

onesten denean, udalak, kasua bada, egoki irizitako alegazioak aurkez ditzan.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde”

LEDEAKO UDALEKO ALKATE OHIAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

José Joaquín Pérez de Obano Liso jaunak –Ledeako bizilaguna, helbidea: Miguel Oyaga plazako 3. zenbakia–, ganbera horrek 2004ko ekitaldiari eta udalaren beste alderdi ekonomiko batzuei buruz egindako auditoriaren behin-behineko txostena igorri zaidanez, ondoko ALEGAZIOAK aurkeztu nahi ditut:

Lehena.- Nafarroako Comptos Ganberari eskerak ematen dizkiot behin-behineko txostena, aurreko alkatea izan nintzelako, igortzeagatik.

Bigarrena.- Behin-behineko txostena irakurri ondoren, Liskarko harrobia ustiatzeko administrazioko emakida mugatzeko hitzarmenari eta Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen dituen Ordenantzari dagokienez azken urteotako alderdi ekonomikoei buruz egindako sintesia nabarmendu nahi dut (V.6.2 atala). Alkate izan nintzen aldetik egin nuen jarduera, bai eta korporazioko gainontzeko kideena ere, islaturik gelditu da espediente horien fiskalizazioan, eta nire ustez argi gelditu da gure jardueran nagusi izan direla legezketasun printzipioa eta udalarentzat etekina lortzeko korporaziokide guztien nahia.

Hirugarrena.- Nafarroako Comptos Ganberaren ustez, udalaren jarduera ekonomiko-finantzariora, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egin da. Azpimarratu egin nahiko nuke alderdi hori; izan ere, Osoko Bilkurak onetsi zituen korporazioko

buru izan nintzen ekitaldi guztietako kontuak, eta ez zen haien aurkako alegazio edo errekurtsorik aurkeztu. Toki Administrazioiko Departamentuari ere igorri zitzaizkion, akta eta bestelako txostenak bezala, eta ez ziren behin ere zuzendu legedia indardunari ez lotzeagatik. Biurteko planen arabera jasotako dirulaguntzen ziurtagiri eta gastuak ere igorri ziren.

Laugarrena.- Nafarroako Foru Komunitateko organo fiskalizatzaile gorenak egindako txosten honek balio behar du Ledea bezalako herri txiki batean bizi den krispazioa amai dadin –300 bat biztanle besterik ez ditu, eta Kudeaketa Batzordeko zinegotziek, gero hautagai-zerrenda bakarreko zinegotzi izan zirenek, hedabideak eta estamentu ofizialak baliatu dituzte lehia politikorako–; halatan, korporazioen jarduna legezketasunaren arabera koa izaki, ekidin egin behar dira etorkizunean liskarrak. Nafarroako Comptos Ganberak Ledean izan den afera aztertu du 27 orriko txosten batean, eta sintesia egiteko ahalegina eginez –hori dira finean auditoria txostenak– udalaren lehengo eta oraingo jarduera laburbildu du.

Ledean, 2005eko abenduaren 29an

Sinatuta: José Joaquín Pérez de Obanos Liso

LEDEAKO UDALEKO ALKATE OHIAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Ledeako Udaleko alkate ohi José Joaquín Pérez de Obanos Liso jaunak aurkeztutako alegazioek ez diote eragiten txostenaren edukari, zenbait gairi buruzko oharra eta argibideak baizik ez direlako.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Comptos Ganberako lehendakariaren ebazpena, 2006ko martxoaren 22koa, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena.

Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikulua gartzten duen Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea da pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarritzko eskubideak eta bereziki haien ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarra bermatu eta babestea datu pertsonalen tratamenduaren arloan.

Lege horren lehen xedapen gehigarriak ezartzen du dauden fitxategiak, pribatuak zein publikoak, arautzeko xedapen bat onetsi beharko dela.

Entitate bakoitzean dauden datu pertsonalen fitxategiak arautzeko xedapen horretan, datu horiek jasotzen dituzten artxibo automatizatuak izendatu behar dira, eta, halaber, artxibo horien egitura eta edukia, datu horiei emanen zaien erabilera, erabilera zuzena ziurtatzeko aplikatzekoak diren segurtasun neurriak eta fitxategi horien arduradunen izenak.

Horrenbestez, horri buruzko txosten juridikoa ikusirik, eta Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak emaniko ahalmenak baliatuz, lehendakari honek

ERABAKI DU:

Lehena.- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, eta horietan aurreikusitako ondorioetarako, ondoko zerrendan ageri eta deskribatzen dira Nafarroako Comptos Ganberaren kargupean dauden fitxategi automatizatuak, datu pertsonalak bildu eta prozesatzen dituztenak:

- a) Erregistro orokorra
- b) Langileen kudeaketarako fitxategia.
- c) Kontabilitaterako eta kudeaketa ekonomiko-finantzariarako fitxategia.

Bigarrena.- Erregistro orokorraren xedea da agirien sarrera eta irteera kontrola egitea barne erabilerari eta epeak egiaztatzeari begira.

Haren edukiak eragina izanen du agiriak aurkezten edo jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, eta interesduak beraiek emanen dituzte datuak.

Fitxategiaren egitura halako erregistroek eskuarki izan ohi dutena da, eta bere baitan hartzen ditu datu pertsonalak, hala nola izen-deiturak, hel-

bidea, herria, posta kodea, eta sarrera eta irteera zenbakia.

Datu horiei emanen zaien erabilerak izanen dira agirien sarrera eta irteera erregistroa kudeatzeak dakartzanak. Ez dago aurreikusirik erregistro orokorreko datuak lagatzea.

Haien zaintza erregistroko arduradunari dago- kio lehenik eta behin, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusiaren eta administratzailearen ikuskapen zuzenaren pean.

Erregistro horretan agertzen diren datuei dago- kienez, indarrean dagoen legerian oinarritzko mailako segurtasun neurritzat jotzen direnak aplikatu- ko zaizkie.

Hirugarrena.- Langileen kudeaketa fitxategia- ren xedea da Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko langileen nominak prestatu, egin eta kontrolatzea.

Fitxategiaren edukiak eragina du Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuan dauden pertsona guztiengan. Fitxategi edo datu base horretan bil- dutako datu pertsonalak hauexek dira:

- a) Identifikazio datuak eta helbidea.
- b) Ezaugarri pertsonalen datuak.
- c) Antzintasunaren eta lansarien inguruko datuak.
- d) Bankuko kontuari eta hartzeoak jasotzeari buruzko datuak.

Fitxategiari emanen zaizkion erabilerak izanen dira nomina eta Comptos Ganberaren zerbitzuko langileei ordaindu behar zaizkien bestelako diru- ariak prestatzeak eta luzatzeak dakartzanak eta horren ondoriozko produktu guztiak lortzea.

Urtero lagako zaizkio Nafarroako Tributu Oga- sunari langileen kudeaketa fitxategiko datu batzuk, hain zuzen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoak; halaber, Nafarroako Gobernu- ko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentu- ko Klase Pasiboen Bulegoari eta Osasun Lagun- tzaren Bulegoari lagako dizkie arlo horiei buruzko datuak. Horretaz gain, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari lagako zaizkio langileen altei eta bajei buruzko datuak horiek gertatzen diren unean; eta, hiler, erakundeko langileen koti- zazio oinarriei buruzkoak. Istripuen edo gaixotasu- nen kasuan, beharrezkoak diren datuak jakinarazi-

ko zaizkie Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari eta lehen aipatu Nafarroako Gobernuko Lehendakari Departamentuari, indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraikiz.

Hilean behin, ukituak ados badaude, banku entitateei lagako zaizkie langileen lansariak ordaintzeko ezinbestekoak diren datuak, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza orokorrari eta gizarte aurreikuspeneko entitateei, berriz, kotizazioetarako behar direnak.

Fitxategi horretan agertzen diren datuen zain-tza Comptos Ganberako administratzaileari dagokio, erakunde horretako idazkari nagusiaren ikuskapen zuzenaren pean.

Fitxategi horretan agertzen diren datuei dagokionez, indarrean dagoen legerian maila ertaineko segurtasun neurritzat jotzen direnak aplikatuko zaizkie.

Laugarrena.- Kontabilitaterako eta kudeaketa ekonomiko-finantzariarako fitxategiaren xedea da kontabilitate-informazio eta dokumentazioa prestatzea, kudeatzea eta kontrolatzea; izan ere, Nafarroako Comptos Ganbera, foru erkidegoko entitate publikoa den aldetik, horretara behartuta dago, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezartzen denez.

Fitxategi honetan datu hauek jasotzen dira:

a) Nafarroako Comptos Ganberaren ondasun eta zerbitzu hornitzaile diren pertsona fisiko eta juridikoei buruzko izenari eta egoitzari buruzko datuak.

b) Comptos Ganberaren kontratista diren pertsona fisiko eta juridikoen emandako zerbitzu eta horniketei dagozkien banku-kontu eta ordainketei buruzko datuak.

c) Comptos Ganberak ondasunak eta zerbitzuak emateko kontratatzen duten pertsona fisiko eta juridikoen nortasunari, ahalmenari eta kaudimenari buruzko datuak, baita horiek aurkezten dituzten oroitidazkiei eta eskaintzei buruzkoak.

Fitxategi hori erabiliko da, hain zuzen, Comptos Ganberak, foru erkidegoko entitate publikoa den aldetik, prestatu behar duen kontabilitate-informazioari eta finantzen egoerei buruzko txostenak prestatzeko, baita Comptos Ganberak betetzen

duen jarduera ekonomiko-finantzarioaren kudeaketa eta barne kontrolarekin lotutako erabileretarako ere.

Comptos Ganberak ez du aurreikusita fitxategi horretako datu pertsonalak besteren bati lagatzea, kontratistei egin behar zaizkien ordainketen kasuan izan ezik; izan ere, horiek Foru Ogasunari jakinarazi behar zaizkio indarrean dagoen legerian ezarritako kasuetan. Horrek ez du eragotziko legez behartuta egotea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari bere jardunaren kontuak ematera, eta horien kopia Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari ematera, Nafarroako Kontu Orokorreran sartzeko.

Fitxategi horretan agertzen diren datuen zain-tza Nafarroako Comptos Ganberako administratzaileari dagokio, erakunde horretako idazkari nagusiaren ikuskapen zuzenaren pean.

Fitxategi horretan agertzen diren datuei dagokionez, indarrean dagoen legerian maila ertaineko segurtasun neurritzat jotzen direnak aplikatuko zaizkie.

Bosgarrena.- Nafarroako Comptos Ganberako erregistroen eta fitxategien gaineko azken erantzukizuna erakunde horretako lehendakariarena da, ukatu gabe arlo edo zerbitzu bakoitzaren ardura-dunak fitxategiak kudeatzen eta zaintzen izanen duen zuzeneko erantzukizuna.

Seigarrena.- Sarbidea izateko, zuzenketa egiteko eta bertan behera uzteko eskubideez baliatu ahal izanen da Nafarroako Comptos Ganberako Idazkaritza Nagusian, erakundearen egoitzan, Antsoleaga kaleko 10ean, Iruñeko 31001 posta kodea, 848421400 telefono zenbakia.

Zazpigarrena.- Ebazpen honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Zortzigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari eta Nafarroako Aldizkari Ofizialera eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera, argitaratzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Lehendakaria. Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa.

Gainditu dutenen zerrenda

Apirilaren 7an, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdiko epaimahai kalifikatzaileak lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda igorri du, erdietsitako puntuazioaren arabera ordenatuta. Deialdia 2005eko abenduaren 13ko Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariaren erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta data bereko 2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hori guztia ikusita, deialdiko 7. oinarriaren 1. idatz-zatiarekin bat, gainditu dutenen zerrenda hori argitaratu behar da. Hori dela eta, Lehendakaritza honek

ERABAKI DU:

Lehena. Lekualdatze lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren

arabera ordenatuta, deialdiko epaimahai kalifikatzaileak igorri duenez, ezagutzen duela adieraztea. Hona zerrenda hori:

Izen-deiturak	Puntuazioa, guztira (6.1 oinarria)
Lander Laurens, M ^a Isabel	47,72
Casado Redín, Cristina	45,46
Pérez de Albéniz Andueza, M ^a Francisca	43,46

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria:
Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	